

2023-2027

GOBERNU

PROGRAMA

DONOSTIARREKIKO

KONPROMISOA



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

2023-2027

GOBERNU PROGRAMA

Donostiarrekiko konpromisoa

AURKIBIDEA

- SARRERA
- HIRI-PROIEKTUAK
- 5 KONPROMISO DONOSTIARREKIN
 1. Donostiarrak eta gure auzoak izatea gure ekintza politikoaren ardatz.
 2. Gazteentzako eta 45 urtetik gorakoentzako enplegu-politika aktiboak sustatzea.
 3. Gaztetutako hiri batean bizitzea eta gozatzea.
 4. Elkarrizketan eta herritarren konplizitatean oinarrituta lan egitea, hiri partekatu baten alde.
 5. Gure hiriaren etorkizun jasangarria eraikitzea.

SARRERA

Hiri bikaina jaso dugu ondare. Etorkizuneko belaunaldiei utziko diegun Donostia eraikitzea da orain gure konpromisoa.

Donostia beti izan da hiri plurala; ikuspegi, errealitate eta ikuspegi ugariz osatua. Horrela, desberdinen arteko akordioa eta baterako lana izan dira, eta dira, hiria behar bezala kudeatzeko eta aurrera egiten saiatzeko nahitaez izan behar diren egonkortasuna eta adostasun politikoa ahalbidetzen duten ardatzak.

Pandemiak markatutako legegintzaldi baten ondoren, zailtasun eta ezusteko asko gainditzeko gai izan gara, eta hurrengo lau urteetan aurrera egiten jarraitzeko ilusioarekin eta hobetzeko konpromisoarekin egin nahi diogu aurre. Donostiak ere, beste hiri askok bezala, aldaketa sakonak ekarriko dituzten erronka handiei egin behar die aurre: klima aldaketaren aurkako borroka, zahartze demografikoa, etxebizitza eskuragarriak sortzea, mugikortasun jasangarria, turismoaren hazkundea edota aberastasuna, kalitatezko enplegua eta gizarte-kohesioa sortuko dituen ekonomia indartsu bat sendotzea, besteak beste.

Horregatik guztiagatik, Eusko Alderdi Jeltzalea eta Euskadiko Alderdi Sozialista – Euskadiko Ezkerra **Udal Taldeen Akordioaren** ondorioz, **2023-2027 Gobernu Programa** hau egin du Udalak, aurreko legegintzaldian hasitako proiektu eta planei buru emateko eta Donostiaren etorkizunerako erabakigarriak diren ekimen eta erronka estrategiko berriei aurre egiteko. Gobernu Akordioan hartutako bost konpromisoei erantzuten dieten proiektuak, planak eta ekimenak:

1. Donostiarrak eta gure auzoak izatea gure ekintza politikoaren ardatz.
2. Gazteentzako eta 45 urtetik gorakoentzako enplegu-politika aktiboak sustatzea.
3. Gaztetutako hiri batean bizitzea eta gozatzea.
4. Elkarriketan eta herritarren konplizitatean oinarrituta lan egitea, hiri partekatu baten alde.
5. Gure hiriaren etorkizun jasangarria eraikitzea.

Bost konpromiso horietatik abiatuta, 2023-2027 aldirako Gobernu Programa honek datozen lau urteetan Udalaren arlo eta Udalaren mendeko erakunde guztien kudeaketa markatuko duten helburu, lehentasun eta jarduera nagusiak ezarri ditu; eta aurrekontuak, kudeaketa-planak, jarraipen-txostenak eta gauzatze-maila egitea ere erraztuko du.

Azkenik, entzute aktibo, ireki eta plurala eta eragile sozial, ekonomiko edo kulturalen eta herritar guztien parte-hartzea sustatzea oinarri izango duen koalizio-ereduaren alde ere egiten du Gobernu Programa honek. Gobernu indartsua izatea, kohesioan eta gizarteratzean aurrera egitea eta donostiar guztien bizi-kalitatea hobetzea ahalbidetuko duten politikak abian jarriko dituena.

Datozen urteak funtsezkoak izango dira hurrengo hamarkadetako hiria definitzeko.
Elkarren artean eraikiko dugu etorkizuneko Donostia.

HIRI-PROIEKTUAK

DONOSTIARREKIKO KONPROMISOA

Pandemia global bat gainditu ondoren, beste krisi ekonomiko eta energetiko batean eta egoera geopolitiko ezegonkor batean murgilduta egonik, bere etorkizuna markatuko duen etapa erabakigarritzat ikusten du datorren lau urteko hau Donostiak.

Hori dela eta, gaur egun martxan dauden eta legegintzaldi honetan amaituko diren proiektu erabakigarriekin batera, hirirako ekimen estrategiko berriak identifikatu ditu Udalak, honako hauek ahalbidetzeko:

1. Tokikotik abiatuta, donostiar guztientzako bizi-proiektu osoak bermatuko dituzten erronka globalei aurre egitea.
2. Hainbat eremutan hiri erreferente bat eraikitzen jarraitzea, duen identitateagatik, berezitasunagatik eta bizi-kalitateagatik erakargarria izango dena.
3. Hiriaren aurrerabidetik eta aurrerapenetik ez kentzea begirada aurrera ere; etorkizuneko belaunaldiei utziko diegun ondarea aurrean izanda beti.

Proiektu estrategiko horiei esker, aurrera egin ahal izango du Donostiak, eta bere etorkizuna urrats sendoz eraiki, hiri indartsua eta duen bizimodu, bizikidetzeta eta ongizate-ereduagatik erreferente izango dena.

HIRI-PROIEKTUAK

GUNE PUBLIKO IREKI ETA IRISGARRIAK

Ingurune berriak urbanizatzea eta oinezko bihurtzea, Donostiak kalitatezko hiri-espazio berde eta adiskidetsu gehiago izan ditzan.

Ekimenak:

- Tabakalera: parke berria, berdeguneak eta atsedenlekuak itzaletan dituen. Esther Ferreren "Zenbaki lehenen poema" obra parkean integratzea.
- Artzain Onaren ingurunea: San Martin kalea, Artzain Onaren ingurua eta Loiola eta Garibai kaleak berrantolatzea.
- Gipuzkoa Plaza, oinezkotzea.
- Haizearen Orrazia birgaitzea.

Helburuak:

Oinezkoentzako hiria.

Hiri-espazio atsegina eta irisgarriak.

Kultura nortasun-ikur gisa.

HERRITARREN SEGURTASUNA

Udaltzaingoaren baliabideak indartzea hurbileko zerbitzua hobetzeko eta segurtasunaren inguruan sortzen diren premia berriei erantzuteko.

Ekimenak:

- Zentro eragile berriak: Udaltzaingoaren Komisariordetza Ekialdeko Barrutian eta Udaltzaingoaren-Ertzaintzaren arteko komisaria mistoa Egian.
- Udaltzaingoaren plantilla handitzea.
- Egokitutako material berria erostea.

Helburuak:

Donostia hiri segurua.

Hurbileko arreta.

Auzoetako bizi-kalitatea.

DONOSTIA BERDEA. KLIMAREN ALDEKO APUSTUA

Ondare berdearen, biodibertsitatearen kontserbazioaren eta gure hirian dauden birika berde handien bidez, Donostiaren apustua indartu klima-aldaketaren aurkako borrokan Gure parkeak eta lorategiak mantentzen jarraitu, zuhaitz gehiagorekin eta berdegune gehiagorekin, lorezaintza hobetuz.

Ekimenak:

- Geroz eta berdeagoa den hiri baten alde egin: hiriko biodibertsitatea eta ondare berdea, parke eta lorategiak landuz, ahal den neurrian berdeguneak hobetuz, zainduz eta zabalduz. Lau Haizeta, Kristina enea, Ametzagaina, Miramon, Uliá, Urgull, Igeldo.

- Klima-aldaketaren erronkei buruzko sentsibilizazio-kanpainak: biodibertsitatea landuz, hondakinen sorrera murrizteko erantzunkidetasuna landuz eta birziklatze-tasak hobetuz.
- Energia-komunitateak: etxeetan, komunitateetan eta eraikin publikoetan energia-kudeaketa eraginkorra sustatzen eta errazten duten ekimenak, proiektuak eta laguntzak aktibatzea.
- Bide Berdeak: hiriko berdeguneak lotzea, hiriko eta oinezkoentzako ibilbideen bitartez; bat egiteko parkeek eta birika handiek.

Helburuak:

Klima-aldaketaren aurkako borroka.
Berdeguneak, natura eta jasangarritasuna.
Osasuna eta ongizatea.

TURISMOA– HELMUGA ZAINTEA

Donostia turismo-helmuga jasangarri eta donostiarrentzat onuragarri gisa zainduko duten neurri aitzindariak abian jartzea.

Ekimenak:

- Turismo-tasa ezartzea.
- Turismoko datuen behatokia sortzea.
- Sailen arteko Turismo Mahaia aktibatzea.

Helburuak:

Turismo arduratsua.
Turismo-eredu jasangarria.
Auzoetako bizi-kalitatea.

KOLEKTIBO ZAURGARRIEK GIZARTE ZERBITZUEN SISTEMARA (GZS) SARBIDEA IZATEA

Gizarte Zerbitzuen Sistemak oraindik ezagutzen ez dituen adineko pertsonak eta pertsona kalteberak hobeto eta gehiago ezagutzeko neurriak ezartzea. Kasu isolatuak detektatzeko proiektuak bultzatzea.

Ekimenak:

- Kasu isolatuak hautemateko proiektu esperimentalak abian jartzea.
- Zaurgarritasun-egoeran dauden adinekoen % 100ekin harremanetan egotea.

Helburuak:

Adineko pertsonen eta pertsona ahulei laguntzea.
Zainketa-sistema hobetzea.
Zahartze aktiboa.

GIZARTEAN ERAGINA DUEN ZIENTZIAREN ETA JAKINTZAREN HIRIA

Donostia nazioarteko erreferente izaten jarraitzea zientzian, ezagutzan, berrikuntzan eta ikerketan, donostiarrentzat aberastasuna eta kalitatezko enplegua sortzeko ardatz bultzatzaile gisa.

Ekimenak:

- Zientzia sustatzeko eta zabaltzeko ekimenetan parte hartzea.
- Hirian I+G+b enpresak eta goi-teknologiako poloak ezartzea, hala nola MUBIL edo ikerketa kuantikoa.
- Etengabeko lankidetzak unibertsitateekin eta goi-mailako hezkuntza-zentroekin.

Helburuak:

I+G+Bko erreferenteak.

Aberastasuna sortzea.

Kalitatezko enplegua.

MIRAMONGO PARKE TEKNOLOGIKOA HANDITZEA

Teknologia aurreratuko enpresa berrien ezarpena erraztea, Miramongo Parke Teknologikoaren egungo gaitasunari beste 40.000 m² erantsita Galarreta eta Illunbe aldera.

Ekimenak:

- Illunbe konplexuaren salerosketa-akordioa sinatzea Euskadiko Parke Teknologikoekin.

Helburuak:

Kalitatezko enplegua.

Aberastasuna sortzea

Talentua erakartzea.

KALITATEZKO ENPLEGUA GIZARTE-KOHESIORAKO TRESNA GISA

Hirian kalitatezko enpleguaren sorrera sortzea eta erraztea, batez ere zailtasun handienak dituzten kolektiboentzat: 45 urtetik gorakoak, emakumeak eta gazteak.

Ekimenak:

- Teknologia-parkeak handitzea.
- Industria-lurzoru berria garatzea.
- Enplegua sustatzeko programak eta laguntzak.

Helburuak:

Kalitatezko enplegua.

Gizarte-kohesioa.

Garapen ekonomikoa.

LOIOLAKO KUARTELAK, BIZITEGI-GARAPEN BERRIA

Bizitegi-eremu handi bat sortzea hirigintza-kontzeptu berrietan oinarrituta; etxebizitza berriak, komunitate-ekipamenduak, merkataritza-jarduera, berdeguneak eta oinezkoen, bizikleten eta ibilgailuen mugikortasun modu jasagarriak izango dituen. Loiola eta Intxaurren Ametzagainen bidez lotuko dituen gune berri bat.

Ekimenak:

- Salerosketa-akordioa sinatzea Defentsa Ministerioarekin.
- Ideia-lehiaketa nazioartekoa egiteko deialdia, urbanizazio-proiektu integralari buruzkoa.

Helburuak:

Hirigintza berritzailea.

Etxebizitza berria sortzea.

Ekipamendu komunitario berriak.

HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKOR BERRIA (HAPO)

HAPO berria definitzea eta onartzea, honako hauek zehazteko, besteak beste: hirigintza-planak, proiektu berrietarako esparru orokorra, turismo-ostatu berriak irekitzeko mugak edo etxebizitzaren eraikuntza-bolumena optimizatzea hurrengo urteetarako.

Ekimenak:

- Hasita dago lantzeko eta aurkezteko prozesua.
- Behin betiko onarpena izatea.

Helburuak:

Hirigintza-plangintza.

Hiriaren hazkundea.

Hiria berreskuratzea eta berronartzea.

URUMEA ARDATZA, HIRIGINTZA ALDETIK BERE ONERA EKARRI ETA BALIO HANDIAGOA EMATEA

Amara eta Martutene arteko Urumea ingurua bere onera ekartzea. Bizitegi-garapen eta aisialdi-eremu berriak abian jartzea.

Ekimenak:

- Hirigintza aldetik bere onera ekarri eta etxebizitza berriak eraikitzea: Lorategi hiria, Txominenea II eta Antzita.
- Txomineneako anbulatorio berria.
- Sarruetako oinezkoentzako eta txirrindularientzako pasealekua Txominenea ibai-parkearekin lotzea.
- Astiñene baserria berreskuratzea eta berritzea.
- Ibaia garbitzeko, mantentzeko eta berreskuratzeko lanak egitea.
- Urumea ibarrean kirola sustatzea.

Helburuak:

Etxebizitza berria sortzea.
Berdeguneak, natura eta jasangarritasuna.
Osasuna eta ongizatea.

ILLUNBE ETA ANOETAKO KIROL HIRIA

Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, Anoetako kirol hiria eta Illunbe konplexua erabat berritzeko proiektua abian jartzea, Illunbe Gipuzkoako erabilera anitzeko pabilioia izan dadin.

Ekimenak:

- Lankidetzak-akordioa sinatzea Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin.
- Miniestadioa berritzea.
- Erabilera anitzeko pabilioia.

Helburuak:

Donostia, kirolaren hiria.
Ekipamendu komunitario berriak.
Osasuna eta ongizatea.

EASOKO TRENBIDE-ZABALTZA, EREMUA BERRESKURATZEA

TOPOaren pasabidea eta Easoko geltoki berria egindakoan, orain den trenbide-zabaltzak hartzen duen tokia berreskuratu eta berrurbanizatzea, Amara – Erdialdea eta inguruko berdegune eta bizitegi-eremuak lotuko dituen gune berri bat sortuz.

Ekimenak:

- Hirigintza-plangintza egitea Eusko Trenbide Sarearekin (ETS) batera.

Helburuak:

Hiria berreskuratzea eta berroneratzea.
Etxebizitza berria sortzea.
Hiri-espazio atsegina eta irisgarriak.

ETXEBIZITZA BERRIAK SORTZEA

Etxebizitza berriak sortzeko aurreikusitako planak garatzea, 2033rako 6.000 etxebizitza berri sortzeko helburua betetzeko. Era berean, dagoeneko eraikita dagoen ondarea birgaitzea, bereiztea eta egokitzea erraztuko duten araudiak definitzea.

Ekimenak:

- 2027rako 1.900 etxebizitza berri eraikitzea: Lorategi Hiria (292 etxebizitza), Txominenea II (359 etxebizitza), Infernua (540 etxebizitza), Illarra (262 etxebizitza), Igara (250 etxebizitza), Añorga (248 etxebizitza), Apostolutza – Martutene (42 etxebizitza).

- 2033rako etxebizitza berriak: Loiolako kuartelak (1.700 etxebizitza), Easo trenbide-zabaltza (400 etxebizitza), Jolastokieta III (380 etxebizitza), Antzita (720 etxebizitza), Sarrueta (1.080 etxebizitza), Martutene (55 etxebizitza).

Helburuak:

Etxebizitza berria sortzea.

Etxebizitza publikoa eta alokairukoa.

Hiria berreskuratzea eta berroneratzea.

MANTEO – ZEMORIA EREMUA BERRONERATZEA ETA BERRURBANIZATZEA

Manteo eremua biziberritu eta berriro urbanizatzea, etxebizitza berria sortzeko, irisgarritasun-hobekuntzak egiteko eta BCCko (GOe) ekipamendu berria integratzeko. Ekosistema gastronomikoa bultzatzea, zientzia, berrikuntza, prestakuntza aurreratua eta ekintzailtza integratuz

Ekimenak:

- Zuzkidura-apartamentuak.
- Igogailu berria jartzea Nafarroa hiribidea eta Mateo aldea lotzeko.
- GOe eraikin berria eraikitzea.

Helburuak:

Hiria berreskuratzea eta berroneratzea.

Etxebizitza publikoa eta alokairukoa.

I+G+Bko erreferenteak.

SAGUES BERRIA PROIEKTUA

Erabilera handiko hiriko puntu enblematiko hori eraldatu eta Uliako magalean integratuta izango den gune handi bat bihurtzea; berdeguneak, begiratokia eta jolas-jarduerak egiteko eremu irekiak izango dituena.

Ekimenak:

- Eremua berrurbanizatzeko proiektu berria definitzea eta onartzea.

Helburuak:

Hiri espazio atsegina eta irisgarriak.

Hirigintza berritzailea.

Berdeguneak, natura eta jasangarritasuna

2024. URTEA, EDUARDO CHILLIDAREN JAIOTZAREN MENDEURRENA.

Artistaren jaiotzaren mendeurrena ospatzea, Artistaren jaiotzaren mendeurrena ospatzea, Chillidaren ondare artistikoa eta Donostiarekin duen harreman estua balioesten dituzten hainbat ekitaldirekin.

Ekimenak:

- Chillida Biedea.
- San Telmo Museoan erakuskea.
- Beste ekimen batzuk.

Helburuak:

Kultura nortasun-ikur gisa.
Arte-sorkuntzari laguntzea.
Ondarearen babesa.

KULTUR ETXEEN ERALDAKETA ETA BILAKAERA

Kultur etxeen eraldaketari eta bilakaerari buruzko hausnarketa irekia egitea, eskari eta behar berriei zerbitzua emango dien kultur ekipamenduen eredu berri baten barruan.

Ekimenak:

- Barruko eta kanpoko hausnarketa-prozesua egitea, erreferentziazko eragileekin eta herritarrekin. Azken txostena.
- Eredu berria planteatzea.
- Egungo ekipamenduen sarea eta eremu berrietan duen hazkundea aztertzea.

Helburuak:

Kultura nortasun-ikur gisa.
Auzoetako bizi-kalitatea.
Hurbileko arreta.

EUSKARAREN HIRIA

Hizkuntza-normalizazioarekin konprometituta jarraitzea, euskaraz ulertzen duten herritarren ehunekoa handitu (gaur egun % 66 da) eta gainerako hiriburuentzat erreferente izateko.

Ekimenak:

- Hiri-inguruneetan hizkuntza-politika berriak eta berritzaileak aplikatzea.
- Euskara modu naturalean txertatzea hiriko ekitaldi handietan: Zinemaldia, Jazzaldia, Hamabostaldia, kirol-ekitaldiak.
- Euskara Barra-Barra programa: euskara merkataritza eta ostalaritza eremuetan.

Helburuak:

Euskara guztiontzat.
Euskararen erabilera bultzatzea.
Euskara kohesio sozial eta kulturalerako tresna gisa.

HERRITARREN PARTAIDETZA: EREDUA AZTERTU ETA HOBETZEA

Kanpoko eragileekin lankidetzan, herritarren partaidetza eredia aztertu eta eguneratzea, egungo gizarte-errealitatera egokitzeko eta herritarrek udal-gaietan parte hartzea sustatzeko.

Ekimenak:

- Azterketa eta hausnarketa prozesua aktibatzea.
- Herritarren partaidetza eredia definitzea eta behin betiko onartzea.

Helburuak:

Etengabeko demokrazia.

Parte-hartze irekia eta komunitarioa.

Gobernu ona.

GIZA ESKUBIDEekin KONPROMETITUTAKO HIRIA

Donostia giza eskubideen defentsan nazioarteko erreferente izan dadin lanean jarraitzea.

Ekimenak:

- Oroimen-plaken ibilbidea osatzea.
- Terrorismoaren eta indarkeriaren biktime guztien oroimena ohoratzea.

Helburuak:

Giza Eskubideen eta balio zibikoen defentsa.

Memoria historikoa.

Biktimei laguntzea.

HIRI INKLUSIBOA ETA BERDINTASUNEZKOA

Kultura arteko hiria, aniztasuna balio positibotzat sustatzen, errespetatzen eta onartzen duena, eta donostiar guztien arteko interakzioa sustatzen duena, eskubideen, betebeharren eta aukeren berdintasuna sustatuz.

Ekimenak:

- Kultura-aniztasuna sustatzea gizarte-bazterketa prebenitzeko politika aktiboak ezarriz.
- Elkarrekin elkarlanean jarraitzea.
- Hitzarmena hirugarren sektoreko erakundeekin, aholkularitza- eta informazio-programak egiteko.

Helburuak:

Giza Eskubideen eta balio zibikoen defentsa.

Memoria historikoa.

Gizarte-bazterkeriaren aurkako borroka.

HAZI PROIEKTUA, HERRITARRENTZAKO ARRETA INTEGRALEKO ZERBITZUA

Aurrera egitea Herritarrentzako Arreta Integraleko Zerbitzuaren ezarpenean. Zerbitzu horrek udal-zerbitzu guztien lehen mailako arreta zentralizatuko du, eta herritarrentzako erreferentea eta Udalera sartzeko atea izango da.

Ekimenak:

- Aurrez aurreko, telefono bidezko eta telematika bidezko kanalen garapen koordinatua.
- 2027: Finantza, Ingurumen eta Etxebizitza arloetako herritarrentzako arreta-zerbitzuak sartzea.
- Espediente elektronikoko berriak eta arreta telematikoko bidezko funtzionalitate berriak integratzea.
- Arreta eta deien amaiera ratioak hobetzea.
- donostia.eus web berria garatzea.

Helburuak:

Gobernu ona.

Gobernantza irisgarria eta irekia.

Hurbileko arreta.

UDAL!INFO - HERRITARRENTZAKO ARRETA BUELGO BERRIA

Udal!Info - Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren bulego moderno eta oso bat abian jartzea Udalaren bulegoetan. Instalazio berri horiek Udalaren arloetako izapideen arreta eta kudeaketa bateratuko dituzte.

Ekimenak:

- Udal!Info zerbitzua leku berrira aldatzea.
- Hirigintzako, Diru-bilketako, Partaidetzako eta Sustapeneko arreta-zerbitzuak integratzea.

Helburuak:

Hurbileko arreta.

Gobernantza irisgarria eta irekia.

Ekipamendu komunitario berriak.

HIRI-MUGIKORTASUN JASANGARRI BERRIAREN DEFINIZIOA

Hiri-mugikortasun berriari ekitea, Emisio Gutxiko Eremua Plana eta Hiri Mugikortasun Plan Jasangarriaren bidez. Hiriko Mugikortasun Plan Jasangarria berrikustea eta eguneratzea, 4 ardatz estrategikotan oinarrituta: 1) modu aktiboak lehenestea motordun pribatuen gaintik; 2) garraio publikoa berriz pentsatzea; 3) trafiko-eskaria kudeatzea mugikortasuna eraldatzeko; 4) ibilgailuak aparkatzeko lekua optimizatzea.

Ekimenak:

- Emisio Gutxiko Eremua martxan jartzea.
- Hiriko Mugikortasun Plan Jasangarri berria aurkeztea eta onartzea.
- Ekimenen eta mugarren plangintza eta egutegia egitea.

Helburuak:

Mugikortasun iraunkorra.
Garraio publikoa indartzea.
Hiri-espazio atsegina eta irisgarriak.

TRENBIDEKO GARRAIO PUBLIKOA HOBETZEA

Donostia kalitatezko tren-zerbitzuez hornitzea, garraio publikoaren erabilera sustatzeko ibilgailu pribatuaren aurrean, Gipuzkoa, Euskadi eta Estatuarekiko konexio hobeei esker.

Ekimenak:

- TOPOaren lurpeko sahasbide berria.
- AHTa Donostiara iristea.
- Eusko Trenbide Sarea (ETS) eta Renfe trukagailu berria.

Helburuak:

Garraio publikoa indartzea.
Mugikortasun iraunkorra.
Klima-aldaketaren aurkako borroka.

5 KONPROMISO

DONOSTIARREKIN

1. KONPROMISOA

Donostiarrak eta gure auzoak izatea ekintza politikoaren ardatz.

Donostia pertsonen neurriko hiri izateko lan egingo dugu: zaindutako auzoak eta kalitatezko zerbitzu publikoak izango dituen, garraio publikoaren bidez ondo lotua eta hiri-gune gizatiarrago, atseginago eta irisgarriagoak izango dituen.

Seguruak ere bai auzoak, segurtasuna indartuta eta Udaltzaingoak eta Ertzaintzak batera eta elkarlanean jardungo duten polizia-ereduaren alde eginda. Gure auzoetako kaleetan oso presente den segurtasuna: hurbiltasunekoa eta prebentziozkoa.

Donostiarrak beren bizitzako etapa guztietan zaintzea lehentasunezko lan-eremua izango da. Hiria eraldatu eta gazteenentzako bizi-proiektuak eta pertsona kalteberenak zaintzeko eta babesteko jarduerak bultzatuko ditugu. Zerbitzu publikoak indartzeko lan egingo dugu, hezkuntza eta osasuna, adibidez, ezinbesteko tresnak baitira donostiarren zaintza eta herritarren gizarte-kohesioa bermatzeko.

Turismoa industria jasangarri bihurtzearen alde jokatu dugu, hiriarentzat aberastasuna eta herritarrentzako ongizatea ekarriko dituen industria. Helmuga babesteko neurriak eta tresnak ezartzea bultzatuko dugu. Helmuga jasangarria, turismo arduratsuaren alde egiten duena.

TOPOAK SORTUTAKO ZARATAK MURRIZTEA

ETSrekin, Renferekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, hiriko hainbat tokitan tren- eta bide-trafikoaren soinu-inpaktua minimizatzeko neurriak bultzatzea.

Ekimenak:

- ETS: Anoeta – Easo eta Anoeta – Loiolako Erribera zatiak.
- Renfe: Gros eta Ategorrieta geltokiak.
- Gipuzkoako Foru Aldundia: Gi-20 errepidea, Erriberan eta Intxaurren.

Helburuak:

Auzoetako bizi-kalitatea.
Hiri-espazio atsegina eta irisgarria.

OBRAK ETA MANTENTZE-LANAK PLANIFIKATZEA ETA GAUZATZEA

Talka-planei aurrekontua ematea, mantentze-lanak eta aurreikusitako obrak egiteko. Sailen arteko lankidetzaren plangintza eta gauzatzea optimizatzea. Auzokideekin elkarlanean aritzea, haien lehentasunak kontuan hartuta.

Ekimenak:

- Mantentze-lanen eta aurreikusitako beste jarduketak batzuen egutegiak egitea.
- Irisgarritasun-hobekuntzak gauzatzea.

Helburuak:

Auzoetako bizi-kalitatea.
Hiri-espazio atsegina eta irisgarria.

AUZOAK AKTIBATZEKO ETA HOBETZEKO PLANAK (AHP)

Auzoetako bizitza hobetzea, herritarrekin partaidetza-prozesuetan egindako Aktibazio eta Hobekuntza Planen bidez.

Ekimenak:

- AHP Amara Berri: identifikatutako hobekuntza-jarduerak bukatzea.
- Ekialdeko Barrutiaren Plan Estrategikoa: plana aurkeztea eta identifikatutako hobekuntza-jarduerak abian jartzea.
- Gainerako auzoetan, AHP garatzeko egutegia zehaztea.

Helburuak:

Parte-hartze irekia eta komunitarioa.
Auzoetako bizi-kalitatea.

OINEZKOENTZAKO GUNE BERRIAK

Oinezkoentzako gune berriak sortzea, kalitatezko gune atsegina batzuk berreskuratu eta mugikortasun aktiboa eta osasungarria sustatzeko.

Ekimenak:

- Gipuzkoa plazaren ingurua: oinezkoentzako bihurtzea, urbanizatzea eta trafikoa berrantolatzea.
- Ramón y Cajal, Misericordia eta Garibai kaleak: oinezkoentzako kale bihurtzea.
- Kursaal zubia: espaloia zabaltzea.
- Zaragoza eta Xabier Zubiri plazak: birgaitzea, TOPOaren pasabide berria egiteko obrak bukatutakoan.

Helburuak:

Oinezkoen hiria.

Mugikortasun aktiboa eta osasungarria sustatzea.

GARRAIO BERTIKALAREN PLAN ZUZENTZAILE BERRIA

Egungo plana berrikustea eta eguneratzea, desnibel geografikoak dituzten auzoetan irisgarritasuna hobetzeko irtenbideak identifikatzen eta planteatzen jarraitzeko.

Ekimenak:

- Bi igogailu jartzea: Heriz pasealekuaren eta Erregezainen kalearen artean bat (Antiguan), eta Autonomia kalearen eta Osasuniturri kalearen artean bestea (Amara).
- Hirigintza-sustapen batzuetan proiektatuta diren igogailu berriak: Matia, San Bartolome, GOe.

Helburuak:

Hiri-espazio atsegina eta irisgarriak.

Mugikortasun aktiboa eta osasungarria sustatzea.

UDALTZAINGOAREN ETA ERTZAINZAREN ARTEKO LANKIDETZA HOBETzea

Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren arteko lankidetzaren handitu eta areagotzea, hiriko segurtasun-ratioak hobetuko dituzten sinergiak sortzeko eta hurbileko polizia-zerbitzu hobea eskaintzeko.

Ekimenak:

- Tokiko Segurtasun Batzordearen aldizkako bilerak.
- Patruila-zerbitzu partekatuak.
- Informazio eta sentsibilizazio kanpainak.

Helburuak:

Donostia hiri segurua.

Hurbileko arreta.

SEGURTASUNeko ETA BABES ZIBILEKO AGENTEENTZAKO PRESTAKUNTZA AURRERATUA

Prestakuntza aurreratua ematea segurtasunaren eta babes zibilaren arlo espezifikoetan, herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak hobetzen jarraitzeko.

Ekimenak:

- Segurtasuna: ziberdelituei buruzko prestakuntza.
- Babes zibila: uretako larrialdiei buruzko prestakuntza.

Helburuak:

Donostia hiri segurua.

Babes zibila eta larrialdiak indartzea.

LARRIALDI-PLANAK EGUNERATZEA

Larrialdietako eta babes zibileko planak eguneratzeko urte arteko planarekin jarraitzea.

Ekimenak:

- Udaleko Larrialdi Plana.
- Prebentzio Zerbitzuaren Plan Estrategikoa.
- Su itzaltze eta salbamendua.
- Laneko arriskuak murrizteko plana.

Helburua:

Babes zibila eta larrialdiak indartzea.

Donostia hiri segurua.

BABES ZIBILEKO ETA LARRIALDIETAKO ZERBITZUETARAKO LANKIDETZA-HITZARMEN BERRIAK

Babes zibilean eta larrialdietan esku hartzen duten gainerako agentziekiko lankidetzaren areagotzea.

Ekimenak:

- Hitzarmen berriak sinatzea DYA, Gurutze Gorria, Osakidetza, Euskalmetekin.

Helburua:

Babes zibila eta larrialdiak indartzea.

Gizarte eta komunitate ekintza.

HERRITARRENGANAKO KOMUNIKAZIO-SISTEMA BERRIA

Herritarrenganako komunikazio kanalak eta sistemak hobetzea, bai larrialdi-egoeretarako, bai eta prebentzio eta dibulgazio-ekintzetarako ere.

Ekimenak:

- Mezularitzan eta sare sozialetan oinarritutako komunikazio-sistema berria.

Helburuak:

Hurbileko arreta.

Gobernantza irisgarria eta irekia.

TURISMO ARDURATSUA SUSTATZEA

Donostia helmuga jasangarri eta orekatu bihurtzen jarraitzea, eta auzo guztiei mesede egingo dien turismo arduratsu eta errespetuzkoa ere sustatzea.

Ekimenak:

- Ordenantza berria, autokarabanekek eta kanperrek aparkatzea arautu eta gaua igarotzea debekatzeko.
- Hirian bisita gidatuak egitea arautzeko ordenantza berria (kopurua, ordutegiak, gidarien prestakuntza...).
- Ostatu turistikoez gainezka dauden eremuak izendatzea. HAPOn sartzea.

Helburuak:

Turismo-eredu jasangarria.

Helmuga zaintzea.

MERKATARITZA IRAUNKORRA ETA OSTALARITZA

Ingurumenarekin arduratsua den merkataritza iraunkorraren alde egitea, eta erreferentziako eta bikaintasunezko ostalaritzaren alde egitea, enplegua sortzeko eta erakartzeko jardura gisa.

Ekimenak:

- Saltokientzako eta ostalaritzarentzako laguntza eta pizgarri plana.

Helburuak:

Tokiko merkataritzari eta ostalaritzari laguntzea.

Helmuga zaintzea.

GIZARTE ZERBITZUGUNEAK HOBETZEA ETA EGOKITZEA

Teknikari/administrari bakoitzak kasu egindako pertsona ratioa murriztea. Gizarte Zerbitzugune batzuetan egin daitezkeen hobekuntzak egitea. Antiguán eta Erriberetan gunek berririk behar den aztertzea.

Ekimenak:

- Arretako teknikari eta administrari gehiago kontratatzeko urte arteko plana.
- Diren 8 zerbitzuguneak hobetzeko beharrei eta beste batzuk irekitzeko posibilitateari buruzko azterketa-txostena.

Helburuak:

Zainketa-sistema hobetzea.

Adineko pertsoneri eta pertsona ahulei laguntzea.

ERLAUNTZA PROGRAMA SUSTATZEA

Auzo bakoitzaren hurbileko ingurunean jarduten duten kolektibo eta zerbitzuen partaidetza-dinamika hori bultzatzea, beharrei modu komunitarioan erantzuteko.

Ekimenak:

- ERLAUNTZA taldeak indartzea auzo bakoitzeko beste eragile eta kolektibo batzuekin batera.

Helburuak:

Gizarte eta komunitate ekintza.
Zainketa-sistema hobetzea.

GURE ADINEKOENTZAKO ARRETA HOBETZEA

Adinekoei arreta emateko programak eta zerbitzuak indartzea, bai beren etxean bertan, bai eskura dituzten gizarte-ostatueta, kalteberatasun-egoerak ahalik eta gehien murrizteko.

Ekimenak:

- Etxez etxeko laguntza-zerbitzua: % 100engana iristea bermatzea.
- Adinekoentzako arreta ostatu sozialetan: araudi berria onartzea.
- GERTU: zainketa komunitarioen plan berria. Amara Berriko eta Bidebietako ekintza-plana.

Helburuak:

Adineko pertsoneri eta pertsona ahulei laguntzea.
Zainketa-sistema hobetzea.

GOIZALDIAK SENDOTZEA

Zahartze aktiboa eta gizarte-harremanak bultzatzea, adineko zaugarrien bizi-kalitatea hobetzeko.

Ekimenak:

- GOIZALDIAK zerbitzua beste auzo batzuetan ere.
- Jarduera eskaintza handitzea, jarduera fisikoaren planak barne.

Helburuak:

Zahartze aktiboa.
Adineko pertsoneri eta pertsona ahulei laguntzea.

ERRETIRATUEN ELKARTEEI LAGUNTZEA

Auzo batzuetako erretiratuen etxeetako lokaletan hobekuntza-obra egitea. Administrazio eta lege gaietako laguntza, kudeaketa eta aholkularitza hobetzea.

Ekimenak:

- Groseko, Erdialdeko eta Amarako erretiratuen etxeak berritzea.

Helburuak:

Zahartze aktiboa.
Gizarte eta komunitate ekintza.

HAURRAK ETA FAMILIAK ZAINTEA ETA BABESTEA.

Haurren eta, bereziki, babesgabetasun eta pobrezia egoeran dauden familia eta adingabeen prebentzio, arreta, esku-hartze eta babes programak hobetzea eta indartzea.

Ekimenak:

- Gune berri bat eratzea HESTIAN, babesgabetasun-arriskuan dauden familiei eta adingabeei kasu egiteko.
- Ebidentzian oinarritutako datuak aztertzea, arreta eta prebentzio zerbitzuak eta baliabideak egokitzeko.

Helburuak:

Haurren eta gazteen babesa.
Gizarte eta komunitate ekintza.

GAZTERIA: OSASUN EMOZIONALAREN ARRETA.

Erreferentziazko beste erakunde eta eragile batzuekin batera, gazteen osasun emozionalean arreta jarriko duten programak eta ekimenak aktibatzea.

Ekimenak:

- Diagnostiko-txostena.
- Ekintza eta ekimen plana.

Helburuak:

Haurren eta gazteen babesa.
Osasuna eta ongizatea.

GAZTEENTZAKO LANERATZE ETA GIZARTERATZE AUKERAK

Gizarte-bazterkeria egoeran diren gazteak gizarteratzeko, etxebizitza eskuratzeko eta laneratzeko aukerak sortzea, lan-programa batzuen bidez.

Ekimenak:

- TRAPEZISTAK, KUVU eta IRAULI programak garatzea Eusko Jaurlaritzarekin batera.

Helburuak:

Gizarte-bazterkeriaren aurkako borroka.
Gizarte eta komunitate ekintza.

KALE EGOERAN ETA GIZARTE-BAZTERKERIAN DAUDEN PERTSONAK

Bazterkeria-egoeran diren etxerik gabeko pertsonentzako udal programak eta zerbitzuak handitzea, indartzea eta hobetzea, gizarteratzen laguntzeko.

Ekimenak:

- HESTIA (Villa Salia) zentro berria eta Gizarte Harrerako Udal Zentroa (CMAS) irekitzea.
- Gizarte Larrialdietako Udal Zerbitzua: lehenengo elkarrizketa 7 egun baino lehen egitea bermatzea.
- OTORDUAK programa: eguneko otordu kopurua handitzea.
- Norbere burua eta arropa garbitzeko zerbitzu programa pilotua martxan jartzea.

Helburuak:

Gizarte-bazterkeriaren aurkako borroka.

Gizarte eta komunitate ekintza.

DONOSTIALDEKO ESIAREN OSPITALE-GUNE BERRIA

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin eta Osakidetzarekin lankidetzan aritzea hirigintza-jarduketak egikartzeko eta zerbitzuak egokitzeko.

Ekimenak:

- Minbiziaren tratamendurako (protonterapia) eta kanpo-kontsultarako eraikin berriak.
- Lurpeko aparkalekuak eraikitzea.

Helburuak:

Osasuna eta ongizatea.

Ekipamendu komunitario berriak.

OSASUN-ZENTROAK: MANTENTZE-LANAK ETA HOBEKUNTZAK EGITEA ETA BERRIAK IREKITZEA

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin eta Osakidetzarekin lankidetzan estuan, aurreikustea eta planifikatzea orain diren osasun-zentroetan mantentze eta hobekuntza lanak egitea eta zentro berriak eraikitzea.

Ekimenak:

- Laster irekiko da: Parte Zaharreko O.Z. (Bretxa).
- Proiektuan: O.Z. berria egitea Txominenean.
- Egungo mantentze eta hobekuntza plana berrikustea eta eguneratzea.

Helburuak:

Osasuna eta ongizatea.

Hurbileko arreta.

JOLASLEKU INKLUSIBOAK IKASTETXEETAN

Eskolako jolaslekuen erabilera ekitatiboagoa sustatzea, haietan egiten diren jarduerak eta diren lekuen banaketak haurren arteko harremanak berdinagoak izateko modua eman dezan.

Ekimenak:

- Dagoeneko berritzen ari diren jolaslekuak: Ibai Ikastola, Aiete Ikastetxea, Zuhaitzi Ategorrieta eta Amara Berri Urbietakoak.
- Eusko Jaurlaritzarekin adostea beste ikastetxe batzuetako jolaslekuak ere estaltzea eta eraldatzea.

Helburuak:

Haurren eta gazteen babesa.

Osasuna eta ongizatea.

2. KONPROMISOA

Gazteentzako eta 45 urtetik gorakoentzako enplegu-politika aktiboak sustatzea.

Ekonomia aldetik egoera onean dela erakusten dute Donostiako datuek: EAEko hiriburuetakoa langabezia-tasarik txikiena du, batez besteko errentarik altuenak, ekintzailtzarako inbertsio-tasa handiak eta BPGaren % 3,6 I+G+Brako jarrita (Espainiako eta Europar Batasuneko batezbestekoaren oso gainetik: % 1,4 Espainian eta % 2 Europar Batasunean).

Baina oraindik ere badira kalitatezko enplegu egonkorra aurkitzeko zailtasun handiak dituzten kolektiboak (45 urtetik gorakoak, emakumeak eta gazteak). Horregatik, Udalak kalitatezko lanpostuak sortzeko ahaleginak egingo ditu, kalitatezko enplegu gehiago izateak desberdintasunari aurre egitea eta gizarte-kohesioa sustatzea esan nahi baitu.

Industria-jarduera punta-puntakoa eta berritzailea bultzatuko dugu, eta, horretarako, enpresa berriak etortzea eta teknologia eta jasangarritasun poloak sortzeko modua ekarriko duen industria-lurzorua sortuko dugu. Tokiko merkataritzaren eta ostalaritzaren garapena bultzatuko dugu, auzo guztietan aberastasuna eta enplegua sortzeko sektore garrantzitsu gisa sustatzen eta sustatzen jarraituko baitugu. Eta lanean jarraituko dugu Donostia nazioartean erreferentzia izan dadin zientzian, berrikuntzan eta ezagutzan, talentua eta inbertsio publiko-pribatua erakar ditzan, aurrerapena, hazkundea eta aberastasuna sortzeko.

GAZTEENTZAT KALITATEZKO ENPLEGUA IZATEA SUSTATZEA

Bazterkeria-egoeran dauden gazteak lan munduan sartu eta enplegua izateko aukerak sortzea, Sustapen Baltzuaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren ELKARREKIN LANEAN estrategiaren bidez.

Ekimenak:

- Lana bilatzeko aholkularitza-programak.
- Gazteentzako nazioarteko bekak.
- Kontrataziorako laguntzak.
- Talentua itzultzeko programak.

Helburuak:

Kalitatezko enplegua.
Gizarte-kohesioa.

LANA BILATZEN LAGUNTZEA

Eragile ekonomikoekin lankidetzan aritu eta ekimen batzuk bultzatzea, lan-merkatuan sartzeko zailtasun handienak dituzten kolektiboek kalitatezko enplegua aurkitzeko edo negozio bati hirian ekiteko aukera izateko.

Ekimenak:

- Laguntza eta orientazio programak.
- Sektore soziosanitarioko, ostatuako, ostalaritzako edo administrazioko prestakuntza izateko aukera eskaintzea.
- Enplegu-azokak.

Helburuak:

Kalitatezko enplegua.
Enpresa-sorkuntza sustatzea.

HIRIKO PRODUKZIO-SAREAREN ZERBITZUKO PRESTAKUNTZA

Programa eta ekimen batzuk sortzea hezkuntzan; unibertsitateekin, lanbide-heziketako zentroekin eta elkargoekin lankidetzan indartu eta zientzian, teknologian, ingeniartzan eta matematikan (STEM) bokazio berriak izatea sustatzeko.

Ekimenak:

- Lankidetzan hitzarmenak ikastetxeekin.

Helburuak:

Hezkuntza indartzea.
Kalitatezko enplegua.

IKUS-ENTZUNEZKO SORKUNTZAKO HUBA

Ikus-entzunezkoen sorkuntza eta ekoizpen ekosistema bat sortzea; inbertsioak, talentua, industria eta enplegua erakartzeko beste gune bat izateko.

Ekimenak:

- Itun estrategikoak egitea Donostia Kultura, Tabakalera, 2de0, Zinemaldia, EITB eta ikus-entzunezkoen sektoreko eragileen eta EIKENen (Euskadiko ikus-entzunezko enpresen klusterra) artean.

Helburuak:

Talentua erakartzea

Kultura nortasun-ikur gisa.

INDUSTRIA- ETA ENPRESA-PARKEAK GARATZEA ETA HANDITZEA

Industria- eta enpresa-lurzoru gehiago ematea hiriari, kalitatezko enplegu egonkorra sortuko duten industria berriak ezartzeko modua izateko.

Ekimenak:

- Belartza II, beste 210.000 m² gehitzea parkeari: industria-jardueretarako (% 49), jarduera logistikoetarako (% 22) eta zerbitzu-jardueretarako (% 29).
- 27. poligonoa: hobekuntzak eta berregokitzea.

Helburuak:

Industria-jarduera berritzailea.

Kalitatezko enplegua.

ESKUSAITZETA: GIPUZKOAKO INDUSTRIA-PARKERIK HANDIENA

Eskusaitzetan aurreikusitako garapenak bukatu eta urbanizatzea. Teknologia eta industria aldetik puntakoak diren enpresak ezartzeko bidea jartzea.

Ekimenak:

- Urbanizazioaren azken fasea martxan.
- Akordioa SPRIrekin azkeneko lursailak saltzeko.

Helburuak:

Industria-jarduera berritzailea.

Kalitatezko enplegua.

KERKETA KUANTIKOKO POLO BERRIA DONOSTIAN

Ikerketa kuantikoko poloa bultzatzea IBM – Euskadi Quantum Center-ekin eta DIPC-en eraikin berriarekin, elementu traktore eta kuantika aldetik erreferente izateko nazioartean.

Ekimenak:

- Ikerbasque gune berria.
- IBM – Euskadi Quantum Center abian jartzea.
- DIPC: egoitza berria, 6.800 m²-koa.

Helburuak:

I+G+Bko erreferenteak.
Talentua erakartzea.

OSTALARITZA-SEKTOREA ERREGULATZEA

Ostalaritzako negozioen garapen ordenatua eta orekatua arautzea, oreka bermatzeko sektoreak hirian duen hazkundearen, espazio publikoen erabileraren eta herritarrek atsedean hartzeko duten eskubidearen artean.

Ekimenak:

- Ordenantza berria, ostalaritza-establezimenduak distantzien arabera irekitzea arautzeko.
- Terrazak jartzeko eta edukitzeko ordenantza aldatzea.

Helburuak:

Auzoetako bizi-kalitatea.
Tokiko merkataritzari eta ostalaritzari laguntzea.

HIRIAN DIREN MERKATARITZA-EREMUAK BIZIBERRITZEA

Hiri-bilbean eta merkataritza-sarean biltzea hirian diren merkataritza-eremuak, eremu horien erakargarritasuna pizteko eta handitzeko.

Ekimenak:

- ARCCOren merkataritza-ingurunea (Amara Berri): Gregorio Ordoñez kalea oinezkoentzat egitea eta Irun plaza berrantolatzea.
- San Bartolome merkataritza-ingurunea: San Bartolomen izango den merkataritza-gunea Urbieta eta Loiola kaleetako merkataritza-gunean txertatzea. Inguru hartako merkataritza suspertzeko planak.

Helburuak:

Tokiko merkataritzari eta ostalaritzari laguntzea.
Hiri-espazio atsegina eta irisgarriak.

TOKIKO MERKATARITZA DINAMIZATZEA

Donostiako tokiko merkataritzari balioa emateko eta saltoki txikietan kontsumoa aktibatzen laguntzeko dinamikak eta ekimenak sortzea.

Ekimenak:

- Deskontu-bonuak.
- Kaleko merkatuak eta braderie-ak.

- Sentsibilizazio-kanpainak.
- Donostiako merkataritza aintzatestekeo sariak.

Helburuak:

Tokiko merkataritzari eta ostalaritzari laguntzea.
Auzoetako bizi-kalitatea.

BELAUNALDI-TXANDA SUSTATZEA

Dendetan belaunaldi-txanda sustatzeko neurriak abian jartzea, hiriko merkataritza-aberastasunari eta gure auzoetako kaleetako bizimoduari eusteko.

Ekimenak:

- Eskualdatze-planak.
- Prestakuntza.
- Alokairurako laguntzak.

Helburuak:

Tokiko merkataritzari eta ostalaritzari laguntzea.
Enpresa-sorkuntza sustatzea.

3. KONPROMISOA

Gaztetutako hiri batean bizitzea eta gozatzea.

Donostia berrikuntza-prozesuan murgilduta dago gaur egun, etorkizuneko erronka garrantzitsuei aurre egiteko aukera emango dion prozesuan. Horrela, egiten ari garen HAPO berriaren bidez, hiria beste ikuspegi batetik eraikitzea bultzatuko dugu, hirigintza jasangarria eta arkitektura berritzailea egin eta hirigune kalitatezkoak izaten saiatuta.

Etxebizitza sortzea izango da --bai berria eraikita, bai dagoeneko eraikita dagoena berreskuratuta-- gure ahaleginaren beste ildo bat, donostiarren bizimodu proiektu pertsonalak eta familiarrak aurrera ateratzen laguntzeko, bereziki gazteenak. Helburua 2033rako beste 6.000 etxebizitza berri izatea da.

Gaztetutako hiria erakargarria da bertan bizi garenontzat ere. Erakargarria da jaialdi handiek eta Donostia Kulturak, hiriko museoek eta antzokiek osatzen duten ekosistemak sortzen duten kultura eskaintzagatik ere. Gogoeta bat egingo dugu hiriko kultur etxeen eta liburutegien sarearen etorkizunaz eta bilakaeraz; izan ere, erreferentziazko zerbitzua baita herritarrentzat, dagoeneko 30 urte bete baititu eta berriz formulatu beharra baitu.

Eta erakargarria da kirola maite dutenentzat ere. Anoetako Kirol Hiria eta Illunbe multzoa modu integralean berritzeko lan egingo dugu. Baina baita kirola (oinarrizko kirola eta elitekoa) bultzatzen jarraitzeko ere, indar berezia jarriz emakumeen kirolean.

AUDITZ-AKULARRERAKO PLANGINTZA

HAPO berriari Auditzi-Akularrerako behin betiko plangintza zehaztea. Ingurunea errespetatzeko moduko hirigintza-garapena; eremu berdeak, ekipamendu komunitarioak eta erreferentziazko instalazioak izango dituen, teknologia, berrikuntza eta kalitatezko enplegua erakartzeko modukoak.

Ekimenak:

- HAPON sartzea hango erabilera berriak eta proiektua.

Helburuak:

Hirigintza berritzailea.

Hiriaren hazkundera.

HIRI-INGURUNE BERRIAK

Oinezkoentzako gune batzuk berreskuratzea: TOPOa lurperatu eta GI-20 errepideak Marrutxipitik izango duen jobide berria egindakoan sortuko direnak.

Ekimenak:

- Zaragoza plaza (Erdialdea).
- Aita Donostia biribilgunea (Amara).
- Marrutxipi (Intxaurren).

Helburuak:

Hiri-espazio atsegina eta irisgarriak.

Oinezkoen hiria.

HIRI-ITSASERTZA: MANTENTZE PREBENTIBOA

Klima aldaketak ekarriko dituen ondorioak kontuan izan eta hiri-itsasertzeko elementuak monitorizatzeko, egokitzeko eta prebentziozko mantentze-lanak egitea.

Ekimenak:

- Haizearen Orraziaren ingurua eta Eduardo Chillida pasealekua berritzea.
- Sagues eta Monpas aldeko proiektu berria.
- Prebentziozko mantentze-lanak zubietan eta hondartzetan.

Helburuak:

Ondarearen babesa.

Hiri-espazio atsegina eta irisgarriak.

ETXEBIZITZA PLAN ZUZENTZAILEA EGUNERATzea

Orain den Etxebizitza Plan Zuzentzailea berriz begiratu eta eguneratzea, hiriak dituen eta izango dituen beharretara egokitzeko.

Ekimenak:

- Etxebizitza Plan Zuzentzaile berria.

Helburuak:

Etxebizitza berria sortzea.

Etxebizitza publikoa eta alokairukoa.

ALOKAIRU-MERKATUKO GUNE TENTSIONATUAK IZENDATZEA

Euskadiko eta estatuko etxebizitza legeek emandako tresnak erabiltzea hala izendatzeko irizpideak betetzen dituzten auzoetan alokairuko gune tentsionatuak izendatzeko.

Ekimenak:

- Donostia gune tentsionatu izendatzea (Eusko Jaurlaritza).
- Etxebizitzari buruzko legeetan jasotako neurriak abian jartzea, auzo bakoitzaren kasuistikaren arabera.

Helburuak:

Alokairu eskuragarriak.

Etxebizitza parkea handitzea.

GAZTEENTZAKO ZUZKIDURA-APARTAMENUAK ERAIKITZEA

Zuzkidura-apartamentuak eraikitzea, gazteentzako bizitoki-irtenbide gisa, eta arrazoizko alokairu batzuk jartzea haientzat.

Ekimenak:

- Udalaren zuzkidura-apartamentuak: Parte Zaharra (Kanpandegi), Gros (Manteo) eta Txominenea.
- Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan aritzea, Loiolako Erriberetan eta Morlansen apartamentu berriak eraikitzeko.

Helburuak:

Etxebizitza berria sortzea.

Etxebizitza publikoa eta alokairukoa.

BIZTANLERIK EZ DUTEN ETXEBIZITZAK BERRESKURATZEA ETA BERRAKTIBATZEA

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Legeak babestutako neurriak abian jartzea, gaur egun hutsik dauden etxebizitzak higiezin merkatura ateratzeko.

Ekimenak:

- Etxebizitza hutsen errolda amaitzea.
- OHZren igoera eta beste errekareru batzuk aplikatzea.

Helburuak:

Alokairu eskuragarriak.
Etxebizitza parkea handitzea.

KULTUR ETXEAK ETA LIBURUTEGIAK: DIRENAK BERRITZEA ETA BESTE BATZUK IREKITZEA

Kultur etheen eta liburutegien sareko ekipamenduak handitzea eta berritzea, auzo bakoitzeko kulturaren erreferentzia-puntuak izateko aurrera ere.

Ekimenak:

- Bidebieta (Kontadores): gizarte eta kultur etxe berrirako bilakaera aktibatzea.
- Amara: Gobernu Zibilaren eraikina berreskuratzea.
- Kultur etxeak hiri-eremu berrietan: premiak aztertzea Urumea, Añorga eta mendebaldeko ardatzetan.
- Loiolako kultur etxea eta Okendo (Gros) berritzea eta hobetzea.

Helburuak:

Kultura nortasun-ikur gisa.
Ekipamendu komunitario berriak.

HIRIKO ANTZOKIAK MODERNIZATZEA

Berritze eta hobetze lan batzuk egitea Victoria Eugenia eta Antzoki Zaharrea, haien kultur programazioa eskaintza berritzaile baten bidez handitzeko modua izan dezaten.

Ekimenak:

- Victoria Eugenia Antzokia: ekipamenduak berritzea.
- Antzoki Zaharra: irisgarritasuna hobetzea eta ekipamenduak berritzea.

Helburuak:

Kultura nortasun-ikur gisa.
Ondarearen babesa.

FRANCISCO ESCUDERO KONTSERBATORIOA

Instalazio berri batzuk ematea kontserbatorioari, prestakuntza-eskaintza handitu ahal izateko.

Ekimenak:

- Instalazio berri eta handiago batzuk eratzea Easo kalean duen egoitzan.

Helburuak:

Hezkuntza indartzea.
Ekipamendu komunitario berriak.

DONOSTIA, EUSKARAREN ETA EUSKAL KULTURAREN ERAKUSLEIHOA

Tokiko kultura-sarearen erakusleiho bihurtzea Donostia, euskarazko sorkuntza sustatuz eta eskaintza hori Euskaditik kanpoko eremu berrietara esportatzeko tresnak eskainiz.

Ekimenak:

- Ekoizpen artistiko propioaren kanpo-ibiltaritza sustatzea (estatuan eta nazioartean).

Helburuak:

Kultura nortasun-ikur gisa.

Arte-sorkuntzari laguntzea.

LITERATURA-IBILBIDE BATZUK EGITEA HIRIAN

Donostiako literatura-sorkuntza ezagutaraztea, tokiko idazleen ibilbideen eta haien inspirazio-iturri eta literatura-lanen parte izan diren kale, plaza, negozio edo txokoen bidez.

Ekimenak:

- Literatura-ibilbideen mapa.

Helburuak:

Kultura nortasun-ikur gisa.

Arte-sorkuntzari laguntzea.

UDALAREN MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA

Haur eta gazteen ikaskuntzan erreferente eta donostiarren arte-prestakuntzako lehen puntu bihurtzea Udalaren Musika eta Dantza Eskola.

Ekimenak:

- Ekipamenduak eta ikastaro eskaintza guneen araberrako eskarietara egokitzea.

Helburuak:

Hezkuntza indartzea.

Kultura-ekosistema berritzailea eta irekia.

HIRIKO JAIALDI HANDIEN BILAKAERA

Hiriko jaialdi handiak gero eta digitalagoa, aktiboagoa eta heterogeneoagoa den publikoaren eskaera berrietara egokitzea.

Ekimenak:

- Publikoaren bilakaerari eta haren eskaera berriei buruzko hausnarketa.
- Programazioak berriz begiratu eta egokitzea.

Helburuak:

Kultura nortasun-ikur gisa.

Erreferenteak nazioarteko ekitaldietan.

TOKIKO ARTE-SORKUNTZA SUSTATZEA

Arte-adierazpen emergenteek Donostiaren irudia, nortasuna eta kultura-proiektzioa indartzea. Euskal arte-sorkuntza indartzea, Donostia Kultura, Tabakalera, San Telmo Museoa, artistak, galeriak eta arte-eragile publiko eta pribatuen arteko sinergia berrien bidez.

Ekimenak:

- Argi Artean, Museo Bikoitza eta Arte Abian sustatzea.
- Donostia Apain: beste auzo batzuetara ere zabaltzea.

Helburuak:

Arte-sorkuntzari laguntzea.
Kultura-ekosistema berritzailea eta irekia.

DONOSTIA KIROLA, KIROLAREN ETA KIROL-EKITALDIEN DINAMIZATZAILEA ETA SUSTATZAILEA

Kirola eta gizarte-kirola dinamizaziorako programak, proiektuak eta ekimenak abian jartzea Donostia Kirolak, hiriko kirol-elkarte eta eragileekin lankidetzan jardunda.

Ekimenak:

- *Donostia kirola da* komunikazio-kanpaina.
- BLAI jaialdia: kirol eta kultur ekitaldia Urumea ibaian eta hondartzetan.
- Donostia Pilota: akordioak Gipuzkoako Pilota Federazioarekin eta sektoreko enprekin.
- Anoetako estadioa bultzatzea, kirol eta kultur ekitaldi handiak hartzeko.

Helburuak:

Donostia Kirolaren Hiria.
Kirol-ekosistema

KIROLA ETA BIZIMODU OSASUNGARRIA

Osasuna eta ongizatea sustatzea kirol-jardueraren bidez, auzoetan eta, batez ere, aire zabalean egiteko programa eta ekimenen bidez.

Ekimenak:

- *Auzo Kirola* programa: kirolaren inguruko proiektu komunitarioak garatzea auzoetan.
- *Osasun* programa: bizimodu osasungarria sustatzeko programa berria.
- Kirola Parkeak: parkeetan jarduera fisikoko programak garatzea.

Helburuak:

Donostia Kirolaren Hiria.
Osasuna eta ongizatea.

EMAKUMEEN KIROLARI LAGUNTZEA

Klubekin eta ikastetxeekin lankidetzan aritzea emakumeen kirola sustatzen jarraitzeko, oinarrietatik eliteko txapelketetara.

Ekimenak:

- Emakumeen kirol federaturako dirulaguntzak % 15 handitzea.

Helburuak:

Donostia, kirolaren hiria.

Berdintasuna zeharkako ardatz gisa.

KIROL TXARTELA, KIROLA SUSTATZEKO MOTORRA

Kirol Txartelaren prestazioak handitzea, pandemiaren aurreko harpidedun kopurua lortzeko.

Ekimenak:

- Kirol Ekintza eta UDA ikastaroen eskaintza berriz begiratu eta egokitzea.
- Zerbitzu eta produktu berriak sortzea.

Helburuak:

Donostia, kirolaren hiria.

Osasuna eta ongizatea.

KIROL-INSTALAZIOAK ZAINTEKO ETA HOBETZEKO PLANA

Diren kirol-instalazioak hobetzeko, zaintzeko eta berritzeko plan bat definitzea, eta beste diziplina batzuetan kirola egiteko modua emango duten gunek berriak sortzea.

Ekimenak:

- Antiguako eta Igeldoko frontoiak berritzea.
- Kiroldegietako eta gimnasioetako (instalazioak eta makinak) hobekuntzen eta berrikuntzen urte anitzeko plangintza.
- Hobekuntza batzuk egitea hipodromoan (NEXT funtsak).
- Carmelo Baldako fatxada zaharberritzea (NEXT funtsak).

Helburuak:

Donostia, kirolaren hiria.

Ekipamendu komunitario berriak.

HIRIKO KIROLEKO PLANA

Aire zabaleko kirol-espazioak bultzatzea, kirol-modalitate berri batzuk egitea sustatzeko.

Ekimenak:

- Skate Park-a Anoetan.
- Skate Park-a Txaparrenen.

- Parkour eta kalistenia parke berriak.
- Hiriko kirol ekitaldi berriak.

Helburuak:

Donostia, kirolaren hiria.

Osasuna eta ongizatea.

2030EKO MUNDUKO FUTBOL TXAPELKETA

Donostia 2030eko Munduko Futbol Txapelketaren egoitza izateko hautagaitza bultzatzeko mekanismoak eta ekimenak aktibatzea.

Ekimenak:

- Etengabeko komunikazioa RFEFekin eta FIFArekin.
- 2026tik aurrera, kirol-instalazioak (Anoeta estadioa eta entrenamendu-zentroak) eta hiriko beste ekipamendu batzuk egokitzea.

Helburuak:

Donostia, kirolaren hiria.

Erreferenteak nazioarteko ekitaldietan.

4. KONPROMISOA

Elkarrizketan eta herritarren konplizitatean oinarritu eta hiri partekatu baten alde lan egitea.

Donostia hiri plurala, irekia eta askotarikoa da. Sentsibiltate eta ikuspuntu ugari ditu. Hala, beharrezkoa da herritarren partaidetzarako eta demokrazia etengabeko ekimenak bultzatzea, donostiar guztiak gure hirian eta hiri eraikitzen duten politika eta proiektuetan aintzakotzat hartu eta partaide senti daitezen.

Balio demokratikoekin konprometitzea gure nortasun-ezaugarri nagusietako bat da ja. Eta hori indartzen jarraituko dugu, giza eskubideak zabaltzeko ekimenen bidez, terrorismoaren eta indarkeriaren biktimen memoria defendatuz eta LGTBI+ kolektiboaren eskubideak urratzen dituzten jarrera homofobo eta transfoboaren aurka borroka eginez.

Berdintasunak zeharkako ardatza izan behar du, Udalaren lan-arlo guztiak, udal gobernu eta hiriaren egunerokotasuna alderik alde pasatzen dituen. Hori dela eta, politika publiko guztietan genero-ikuspegia txertatzea, emakumeentzako kalitatezko enplegu gehiago sortzea eta sexu eta genero indarkeriaren aurka borroka egitea izango dira legegintzaldi honetako lan-eremu nagusiak.

Udal-baliabideen kudeaketa aurreratuaren alde egiten jarraituko dugu; gobernu ona, herritarren parte-hartzea eta pertsonen integrazioa izateko. Eta euskararen normalizazioa bultzatzen jarraituko dugu, kohesiorako eta integrazio sozial eta kulturalerako tresna gisa.

AUZO MAHAIK

Amara Berriko eta Erriberetako dinamika arrakastatsuak hiriko beste auzo batzuetara hedatzea.

Ekimenak:

- Gros, Loiola eta Martuteneko Auzo Mahaiak sortzea.

Helburuak:

Parte-hartze irekia eta komunitarioa.
Gizarte eta komunitate ekintza.

AUZOZ AUZO

Auzoz Auzo bilerak auzo bakoitzeko elkarte eta auzotar guztiengana zabaltzea. Eragile berriak sartzeko eta bilera irekiak egitea. Etorkinen kolektiboen artean asoziazionismoa eta parte-hartzea sustatzea.

Ekimenak:

- Programa berriz begiratu eta berriren berri definitzea oso-osorik.
- Hobekuntza-plana.

Helburuak:

Parte-hartze irekia eta komunitarioa.
Etengabeko demokrazia.

PARTE HARTZEKO DINAMIKAK SUSTATZEA GAZTEEN ARTEAN

Ikastetxeekin lankidetzan jardun eta gazteentzako dinamikak sortzea, herritarren parte-hartzea sustatzeko.

Ekimenak:

- Ekimenen eta dinamiken programa egitea ikastetxeekin.

Helburuak:

Parte-hartze irekia eta komunitarioa.
Etengabeko demokrazia.

DIBULGAZIO PEDAGOGIKOA

Hiriaren historian giza eskubideen memoria kolektiboa zabaltzeko ekimen pedagogikoak garatzea.

Ekimenak:

- Giza Eskubideen Nazioarteko Egunaren inguruko baliabide pedagogikoak eguneratuta eta berrituta edukitzea.
- Ikastetxe gehiagok parte hartzea.

Helburuak:

Memoria historikoa.
Giza Eskubideen eta balio zibikoen defentsa.

KULTURA-ANIZTASUNA SUSTATZEA

Bizikidetzeta eta kulturen arteko elkarrizketa sustatzea, xenofobia eta arrazakeria prebenitzeko.

Ekimenak:

- Jarduera pedagogikoak.
- Sentsibilizazio-kanpainak.

Helburuak:

Kultura-aniztasuna.
Giza Eskubideen eta balio zibikoen defentsa.

ESKUBIDE, BETEBEHAR ETA AUKERA BERDINTASUNA

Politika, programa eta jardueretan diskriminaziorik ez dagoela bermatzea, eta herritar guztien eskubide politiko, sozial eta ekonomikoen erabilera erraztea.

Ekimenak:

- Udal departamentuen ekintzetan kulturartekotasuna sartzea.
- Hitzarmenak hirugarren sektoreko erakundeekin.
- Elkarrekin elkarlanean aritzea.

Helburuak:

Kultura-aniztasuna.
Giza Eskubideen eta balio zibikoen defentsa.

NAZIOARTEKO LANKIDETZAREKIKO KONPROMISO IRAUNKORRA

Udalaren lankidetzeta bultzatzea, Udalaren aurrekontuaren % 0,7 lankidetzarako izan dadin.

Ekimenak:

- Zuzeneko lankidetzeta Euskal Fondoak-en bidez.
- GKEentzako dirulaguntzak sendotzea.

Helburuak:

Nazioarteko lankidetzeta sustatzea.
Giza Eskubideen eta balio zibikoen defentsa.

LGTBI+ KOLEKTIBOAREN ESKUBIDEAK DEFENDATZEA

Sexu-orientazioagatik eta genero-identitateagatik diskriminatzeari aurrea hartzea; politiken, kanpainen eta LGTBI+ erakundeen eta haien ekimenen babesaren bidez.

Ekimenak:

- Koordinazioa eta lankidetzeta LGTBI+-en Euskal Behatokiarekin, Berdindurekin, Gehiturekin, Erabereanekin eta Ertzaintzarekin.
- Sentsibilizazio-kanpainak.

Helburuak:

Giza Eskubideen eta balio zibikoen defentsa.
Etengabeko demokrazia.

EMAKUMEEN ETXEA: ERAIKIN BERRIA

Emakumeen Etxea egoitza berri batera aldatzea Amara kalean. Eskaintzen dituen zerbitzuak eta haien izaera aztertzea, eskari eta behar berrietara egokitzeko.

Ekimenak:

- Egoitza berrira aldatzea.
- Gogoeta irekia.

Helburuak:

Berdintasuna zeharkako ardatz gisa.
Ekipamendu komunitario berriak.

GIZONEN ETA EMAKUMEEN ARTEKO ERABATEKO BERDINTASUNA

Berdintasuna Udaleko arlo guztietan, gobernuan eta hiriko egunerokoan txertatzen jarraitzea.

Ekimenak:

- Udal-langileentzako prestakuntza-programa espezifikoa.
- Hautaketa-prozesu gardenak, soldata-berdintasuna bermatzeko.

Helburuak:

Berdintasuna zeharkako ardatz gisa.
Udal-administrazioaren eraldaketa.

EMAKUMEEN IRUDIAREN BERRESKURATZE HISTORIKOA

Emakume batzuen lana ikusaraztea, haien ekarpenak ezagutaraziz eta gure kaleetan duten presentzia indartuz.

Ekimenak:

- Udalerriko kale-izendegian emakumeen presentzia handitzea.
- Ekarpenak azaltzeko legendak dituzten panelak jartzea.

Helburuak:

Berdintasuna zeharkako ardatz gisa.

Memoria historikoa.

EMAKUMEENTZAKO HIRI SEGURUA

Emakumeen aurkako indarkeria mota ororen kontra borrokatzea, kaleak eta espazio publikoak seguruago bihurtuko dituzten ekimenen bidez. Hezkuntza sustatzea, prebentzio eta sentsibilizazio tresna gisa.

Ekimenak:

- Bideokamerak jartzea puntu beltzetan.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko hezkuntza eta prebentzio kanpainak.

Helburuak:

Donostia hiri segurua.
Berdintasuna zeharkako ardatz gisa.

SEXU-ERASOEN BIKTIMEI EMATEN ZAIEN ARRETA HOBETZEA

Polizia-erantzun azkarreko eta sexu-erasoen biktimei berehalako arreta emateko protokolo espezializatua finkatzea.

Ekimenak:

- Gaueko aisialdiko establezimenduekin protokoloa aktibatzea.
- Agenteentzako etengabeko prestakuntza.

Helburuak:

Berdintasuna zeharkako ardatz gisa.
Hurbileko arreta.

UDAL-FINANTZAK: ZORPETZE-MAILA TXIKIA ETA KAUDIMEN HANDIA

Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko arauak betetzea (defizita 0, hornitzaileei ordaintzeko batez bestekoa, gastu-araua).

Ekimenak:

- Zorpetze-mailari % 20tik behera eustea.

Helburuak:

Finantza-kudeaketa zorrotza.
Gobernantza irisgarria eta irekia.

UDAL-LANGILEEN PLANTILLA EGONKORTZEA

Udal-langileen behin-behinekotasuna % 8tik behera jaitea eta plantilla handitzea handitu behar den arloetan.

Ekimenak:

- Lan-eskaintza publiko berriak 2023an eta 2024an.
- Abian diren kontratazioak: mugikortasuneko 18 agente berri 3 ekitalditan.
- Lanbide karrera ezartzea udal langileei.

Helburuak:

Udal-administrazioaren eraldaketa.

Finantza-kudeaketa zorrotza.

UDALAREN INFORMAZIO ETA IZAPIDE ADMINISTRATIBOETAKO ZERBITZUAK

Herritarrentzako Arreta Zerbitzua eta haren kudeaketa-tresnak hobetzea. Gogobetetasun-maila 10etik 8 izatea.

Ekimenak:

- Herritarrekiko komunikazio-kanalak (aurrez aurrekoa, telefono bidezkoa eta telematikoa) hobetzeko plana.

Helburuak:

Hurbileko arreta.

Gobernantza irisgarria eta irekia.

UDAL-JARDUERAREN INTEGRITATEA

Integritate publikoaren eredu bat ezartzea alderdi guztietan, Gardentasun Plana aplikatuz eta Iruzurraren aurkako Planaren jarduketak osatuz. Gardentasun helburua: estatuko aurreneko 3 hiriburuen artean egotea gardentasun rankingean.

Ekimenak:

- 4 kode etiko onartzea.
- Iruzurraren aurkako Planaren % 100 osatuta izatea.

Helburuak:

Gobernantza irisgarria eta irekia.

Etengabeko demokrazia.

JARDUERA ARDATZ DUEN UDAL-ANTOLAKETA ERAGINKORRA

Udalaren antolaketa eta egitura gizartearen premia aldakorretara egokitzea: eman zaien jarduerari erantzuteko baliabiderik eraginkorrenak emanaz eta jarduera-katalogoen ereduak antolatuz eta sinplifikatuz.

Ekimenak:

- Katalogo guztiak (% 100) ordenatuta, sinplifikatuta eta argitaratuta edukitzea.
- Proposatutako baliabide-zuzkiduren % 50 onartuta izatea.

Helburuak:

Gobernantza irisgarria eta irekia.
Udal-administrazioaren eraldaketa.

KUDEAKETA PUBLIKOAREN EREDUA GJHEKIN LERROKATUTA

Estrategia, zerbitzuak eta emaitzak bata bestearekin uztartuta eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) lerrokatuta izango den Kudeaketa Publikoaren Eredua ezartzea, hizkuntza herritarrekin eta eragileekin bateratzeko.

Ekimenak:

- Gobernu Plana, kudeaketa planak eta zerbitzuak aurrekontuaren exekuzioarekin, kontuak ematearekin eta memoriekin lotzea, integritatean oinarrituta.

Helburuak:

Gobernantza irisgarria eta irekia.
Etengabeko demokrazia.

DOKUMENTUAK ARTXIBATZEKO ETA KUDEATZEKO UDAL SISTEMA

Dokumentuak Artxibatzeiko eta Kudeatzeko Udal Sistema definitzea eta ezartzea, lege-araudi berrira egokituta.

Ekimenak:

- Dokumentuak Kudeatzeko Politika eta Artxibo Sistemaren Araudia onartzea.
- Dokumentu-funtsak digitalizatzea.
- Funtsetarako jobidea hobetzea.

Helburuak:

Gobernantza irisgarria eta irekia.
Udal-administrazioaren eraldaketa.

EUSKARA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN ZEHARKAKO ARDATZ

Administrazioan euskararen erabilera normalizatzea, herritarrei zerbitzua emateko hizkuntza eta lanean pertsonen arteko harremanetarako hizkuntza izateko. Euskara kudeaketaren erdigunera eramatea.

Ekimenak:

- Langile berriei harrera egiteko protokoloa.

Helburuak:

Euskararen erabilera bultzatzea.
Udal-administrazioaren eraldaketa.

EUSKARA ETORKINENTZAT

Euskaltegiekin eta hizkuntzak irakasteko zentroekin lankidetzan, etorkinek euskara nola ikasten duten monitorizatzea, eta komunitate-harremanetarako eta praktika errealeko dinamikak sortzea.

Ekimenak:

- Programak sortu eta berritzea, harreraren eta lortutako emaitzen arabera.

Helburuak:

Euskara guztiontzat.

Euskara kohesio sozial eta kulturalerako tresna gisa.

HARRERA LINGUISTIKORAKO PROTOKOLOA

Harrera linguistikorako protokoloa egitea, Donostian bizitzen jarri nahi duten pertsonen euskararen balioak transmititzeko, komunikazio eta bizilagunen elkarbizitzarako hizkuntza gisa.

Ekimenak:

- Harrera linguistikorako protokoloa egitea.

Helburuak:

Euskararen erabilera bultzatzea.

Euskara kohesio sozial eta kulturalerako tresna gisa.

5. KONPROMISOA

Gure hiriaren etorkizun jasangarria eraikitzea.

Donostiak, Euskadik eta Euskadiko gainerako udalerriek bezala, garapen jasangarriaren ikuspegitik heldu behar dio etorkizunari. Horrek lidergo-gaitasuna eskatzen du, eta jasangarritasunaren hiru zutabeetan (ekonomia, ingurumena eta gizarte-politika) oinarritutako estrategia bat aurrera eramatea.

Klima aldaketaren aurkako borrokaren jarduera-ardatz nagusietako bat mugikortasun jasangarria da. Hemendik aurrera ere etengabe ahalegindu behar dugu garraio publikoa sustatzen, ibilgailu pribatuaren erabilera eraginkorragoa eta arrazionalagoa hauspotzen eta mugikortasun elektrikoa bultzatzen. Horrela bakarrik lortuko dugu CO₂ emisioak eta kutsadura atmosferikoa murriztea.

TOPOaren pasabide berria martxan jartzeak (geltoki gehiago eta zerbitzu eta maiztasun handiagoak izango ditu) hiriko eta hiriarteko garraio-sarea berrantolatu eta garraibideen arteko intermodalitatea hobetzeko modua emango digu. Gure helburua da oinezkoen, bizikleten eta ibilgailuen mugikortasun eraginkorra eta iraunkorra lortzea denon artean.

Baina klima aldaketaren aurkako borrokari fronte gehiagotatik ere ekin behar zaio. Gure biodibertsitatea eta Donostiako birika berde handiak kontserbatzeko lan egingo dugu. Era berean, energia-komunitateen bidez energia garbiak sortzearen alde egingo dugu, eta eraikin publikoetan eta etxeetan energia-eraginkortasuna sustatzeko ekimenak jarriko ditugu abian.

HIRIKO GARRAIO-SAREA BERRANTOLATZEA

Hiriko garraio publikoa integratu, berrantolatu eta arrazionalizatuko duen sare berri bat definitzea, Dbus dela eragile nagusia, Lurraldearekin, Euskotrenekin eta Renferekin koordinatuta. Hainbat mugarririk abiatuta planifikatzea: Isuri Gutxiko Eremua, TOPOaren trazadura berria martxan jartzea, AHT iristea eta Renferen aldiriko zerbitzua Eusko Trenbide Sareari (ETS) transferitzea.

Ekimenak:

- Dbus: Linea, ibilbide eta maiztasunen mapa berria.
- Autobus-errei sarea zabaltzea, trafikoa eteten denean autobusak pasatzeko izaten diren arazoak konpontzeko.

Helburak:

Garraio publikoa indartzea.

Mugikortasun jasangarria.

HOBEKUNTZAK INTERMODALITATEAN

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Trenbide Sarearekin (ETS) lankidetzan jardun eta puntu intermodalak indartzea, lurraldeko beste herri batzuetara joateko garraio publikoan mugikortasun iraunkorragoa sustatzeko, indartzeko eta errazteko.

Ekimenak:

- Lehenetsuneko puntu intermodalak: Anoeta, Errekalde, Oriamendi, Herrera eta Erriberak.
- Euskotrenen linea berria: Errekalde – Galarreta – Miramon – Ospitaleak.
- TOPOaren geltokietan aparkaleku gehiago izatea.

Helburak:

Garraio publikoa indartzea.

Trafiko-fluxuen kudeaketa eraginkorra.

TAXI-ZERBITZUA HOBETZEA

Gaur egun hirian dagoen taxi-eskaintza modernizatzea, berriz diseinatzea eta handitzea. Taxilizentzien jabeekin, Eusko Jaurlaritzarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta lurraldeko gainerako udalekin lankidetzan arituta.

Ekimenak:

- Donostialdeko, Buruntzaldeko eta Oiarsoaldeko araubide bereziko eremua ezartzea.
- Taxi-flota handitzea.

Helburak:

Garraio publikoa indartzea.

Mugikortasun jasangarria.

DBUS ETENGABE HOBETU ETA GARATZEA

Isuri Gutxiko Eremu (IGE) berria eta TOPOaren bide berria abian jarritakoan, Dbusek eta udal-garraioaren zerbitzuak 2030era bitarte izango dituen erronka, proiektu eta modernizazio planaren inguruko hausnarketa eta definizioa egitea.

Ekimenak:

- 2023-2030 Plan Estrategikoa.
- Dbus elektrifikatzea: garajeak, geltokiak eta autobusak.
- Bus elektriko adimendunaren proiektua (17. linea).

Helburak:

Garraio publikoa indartzea.

Mugikortasun jasangarria.

BIDE-AZPIEGITURA BERRIZ DISEINATZEA

Bide-azpiegitura nagusiak pixkanaka eraldatzea, trafiko-eskaria kudeatzeko eta optimizatzeko.

Ekimenak:

- Berrantolaketak: Aita Donostia plaza, Easoko trenbide zabaltza, barruko lotuneak (Ondarreta, Ategorrieta, Erregina Erregeordea).
- Marrutxipitik Gi-20ra jotzeko lotune berria.

Helburak:

Trafiko-fluxuen kudeaketa eraginkorra.

Hiri-espazio atsegina eta irisgarria.

TRAFIKOAREN KUDEAKETAN HOBEKUNTZAK EZARTZEA

Irtenbide teknologiko batzuk sartzea hiriko trafikoaren eta ibilgailu-fluxuen kudeaketa optimizatzeko.

Ekimenak:

- Mezu aldakorren informazio-panelak jartzea (Udalaren eta Aldundiaren informazio-seinaleak, hiriko bide batzuk ixtea, aparkalekuen egoera...).
- Hobekuntza teknologikoak semaforo-sarean.
- Bide-segurtasuneko neurriak (radarrak, goraguneak...).

Helburak:

Trafiko-fluxuen kudeaketa eraginkorra.

Mugikortasun jasangarria.

LANERAKO MUGIKORTASUNA

Eragindako erakundeekin eta eragileekin lankidetzan jardun eta hiriko lantoki nagusietarako mugikortasuna hobetzeko jarduerak abian jartzea.

Ekimenak:

- Miramongo Parke Teknologikoko, Donostialdeko ESiko eta UPV/EHUko mugikortasun-planak.
- Dbus: 28. eta 17. lineen ibilbidea handitzea Miramongo Parke Teknologikoan. Igararako zerbitzuak hobetzea.
- Eskusaitzetako linea (Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan).

Helburak:

Trafiko-fluxuen kudeaketa eraginkorra.
Garraio publikoa indartzea.

SALGAIK HIRIAN BANATZEAREN KUDEAKETA (SHB)

AECOCekin (Espainiako Merkataritza Kodifikazio Elkartea) lankidetzan jardun eta Salgaiak Hirian Banatzea (SHB) optimizatzeko modua ekarriko duen azterlan bat egitea.

Ekimenak:

- SHB kudeatzeari buruzko azterlana.
- Informazio-aplikazioa garatzea.
- Lurpeko aparkalekuetan toki batzuk moldatzea.
- Gaueko SHB protokoloa egitea.

Helburak:

Trafiko-fluxuen kudeaketa eraginkorra.
Hobekuntzak hiri aparkalekuan.

ESKOLA MUGIKORTASUNEN PLANA ABIAN JARTZEA

Ikastetxeekin batera jardun eta ibilbide seguruak sortzea sustatzea, ikasleek oinez edo bizikletan egiten dituzten eguneroko joan-etorriak helduen laguntzarik gabe eta seguru egin ahal izateko.

Ekimenak:

- Plana modu egokitan aktibatzea hiriko ikastetxe nagusietan.

Helburak:

Mugikortasun jasangarria.
Mugikortasun aktiboa eta osasungarria sustatzea.

MUGIKORTASUN ELEKTRIKOA SUSTATZEA

Aparkaleku publikoetan ibilgailu elektrikoentzako karga-puntuak jartzea planifikatu eta arian-arian martxan jartzea.

Ekimenak:

- Kaleetan argindarrez kargatzeko diren puntuak kudeatzea.

- Zuzenean nahiz zeharka kudeatutako lurpeko aparkalekuak elektrifikatzea (egoiliarren plazak eta txandakakoak).

Helburak:

Mugikortasun jasangarria.

Klima-aldaketaren aurkako borroka.

DISUASIO-APARKALEKUEN PLANA

Hiriaren kanpoaldean, sarbideetatik gertu, aparkatzea sustatzea, erdiko aparkalekuen dei-efektua murrizteko eta, beraz, hiri barruko ibilgailu pribatuen fluxua murrizteko.

Ekimenak:

- Illunberen eta handik den autobus zerbitzuaren erabilera sustatzea.
- Disuasio-aparkalekuen plana, garraio publikoarekin konbinatuta (Igara, Loiola, Miramon, Martutene, Irun – Ficoba –, Usurbil – Aritzeta).

Helburak:

Trafiko-fluxuen kudeaketa eraginkorra.

Hobekuntzak hiri aparkalekuan.

ERABILTZeko MODUAN DIREN APARKALEKUAK OPTIMIZATZEA

Gaur egun diren aparkaleku-plazen erabilgarritasuna eta erabilera aztertzea, kalean nahiz lurpean direnena; tokia libratzeko, oinezkoentzako guneak handitzeko eta egoiliarrek eta salgaiak hirian banatzen aritzen direnek errazago aparkatzeko modua izateko arazoak diren lekuetan.

Ekimenak:

- Hiri osoko lurrazaleko aparkalekuaren azterketa (TAOrekin araututako eremuak eta arautu gabekoak).
- Lurpeko aparkalekuaren azterketa: egoiliarrentzako, motorrentzako, bizikletentzako eta salgai banaketakoentzako toki gehiago jartzea.

Helburak:

Hobekuntzak hiri aparkalekuan.

Hiri-espazio atsegina eta irisgarriak.

DBIZI: ZERBITZUA HEDATZEA

Dbiziren estazio-sarea puntu gehiagotara zabaltzea auzo guztietan, bai eta etxe berriak egindako eremuetara ere. Donostialdeko beste herri batzuetara ere zabaltzea zerbitzua, metropoliko bizikleta sistema publiko bat sortzeko.

Ekimenak:

- MUGIrekin integratzea.
- Zerbitzua beste herri hauetan ere ematea: Astigarraga, Pasaia.

- Dbiziren III. hedapen aldia.

Helburak:

Garraio publikoa indartzea.

Mugikortasun aktiboa eta osasungarria sustatzea.

BIZIKLETAREN ETA GARRAIO PUBLIKOAREN ARTEKO INTERMODALITATEA HOBETZEA

TOPO geltokietatik eta hiriko eta hiriarteko garraio publikoko lotuneetatik gertu, bizikletak eroso, ordenan eta seguru aparkatzeko toki batzuk eratzea.

Ekimenak:

- Aparkaleku bat jartzea Bentaberrin.
- TOPOaren eta Renferen geltoki berrietan aparkalekuak jartzea.

Helburak:

Garraio publikoa indartzea.

Mugikortasun aktiboa eta osasungarria sustatzea.

BIDEGORRI-SAREA HEDATZEA

Bizikleta-bideen sarea handitzea eta diren bide batzuk hobetzea. Ondoko udalerrri batzuekin (Lasarte, Lezo, Pasaia, Astigarraga) lankidetzan aritzeko modurik den begiratzea, herrien arteko bizikleta bidezko lotura izateko.

Ekimenak:

- Hobekuntza batzuk egitea Bulebarra – Erregina Erregeordea – Aldamar bidegorrian.
- Bidegorri berriak: Tranbia kalea (Martutene), Urumeako ibarra, Herrera – Txirrita Bertsolaria (Altza), Lugaritz – Zuatzu, Egia kalea.

Helburak:

Mugikortasun aktiboa eta osasungarria sustatzea.

Hiri-espazio atsegina eta irisgarriak.

BIZIKLETAREN PLAN INTEGRAL BERRIA

Plan berria egitea, honako hauek jasoko dituenak: etorkizuneko bizikleta-sarea diseinatzea, hirigintza-sustapenei lotutako bizikleta-sarea handitzea, bizikleta-aparkaleku seguruak izatea, bizikleta-sarea modelizatzea.

Ekimenak:

- Plan berria egitea.

Helburak:

Mugikortasun aktiboa eta osasungarria sustatzea.

Ekipamendu komunitario berriak.

AZPIEGITURA BERDEAK KONTSERBATZEA ETA HOBETZEA

Gure azpiegitura berdeen kontserbazioa lantzea, bero-uharteei aurre egiten lagundu eta airearen kalitatea garbitzeko guneak izan daitezzen. Zuhaitzia handitzearen eta mantentze eta zaintza hobetzearen alde egitea.

Ekimenak:

- Klima Aldaketaren Behatokia sortzea.
- Klima-babeslekuen mapa.
- Lurzoru eta zoladura jasangarri berriak erabiltzea (proba pilotua egitea Txaparrenen).

Helbururak:

Berdeguneak, natura eta jasangarritasuna.
Klima-aldaketaren aurkako borroka.

ENERGIA KOMUNITATEAK. ENERGIA-ERAGINKORTASUNA SUSTATZEA

Etxe, komunitate eta eraikin publikoetan energia-kudeaketa eraginkorra sustatzen eta errazten duten ekimenak, proiektuak eta laguntzak aktibatzea.

Ekimenak:

- Erkidegoentzako eta etxeentzako energia-laguntzak.
- Energia-komunitateak sortzea.

Helbururak:

Klima-aldaketaren aurkako borroka.
Auzoetako bizi-kalitatea.

HONDAKINEN BILKETA ETA KUDEAKETA HOBETZEA

Birziklatze-ehunekoak handitzea, hondakinen bilketa optimizatuz eta edukiontzi organikoaren erabilera sustatuz.

Ekimenak:

- 5. edukiontzia (materia organikoa) erabiltzeko pizgarria.
- Pilak, kafe-kapsulak eta tamaina handikoak aparte biltzeko sistemak handitzea.
- Bilketa-plan espezifikoak ezartzea saltokiekin eta ostalaritzarekin.

Helbururak:

Osasuna eta ongizatea.
Berdeguneak, natura eta jasangarritasuna.

SANEAMENDU ETA KOLEKTORE SAREA BERRITZEA

Hondakin-urak kudeatzeko sarea hobetzea, batez ere Loiolako Hondakin Uren Araztegia (HUA) eta hiriko beste toki batzuetako kolektoreak.

Ekimenak:

- Loiolako HUAko tratamendu-instalazioak hobetzea.
- Errotetako kolektoreak berritzea.

Helbururak:

Osasuna eta ongizatea.

Berdegunek, natura eta jasangarritasuna.



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**